


Arnas gaixotasunek eragindako ospitaleratzeak %8,5 gehitu ziren 2007an

Gaixotasun kardiobaskularrek eta digestiboek jarraitzen dute sarrera-arrazoi nagusiak izaten

Eustaten datuen arabera, 2007an Euskal AEko akutuen ospitaleetan 297.100 alta erregistratu ziren, eguneko ospitaleko ospitaleratze eta sarreren artean; aurreko urtean baino %2 gehiago. Alta guztien %76 ospitale publikoetakoak izan ziren eta %24 pribatuetaakoak. Aurreko urtean bezala, 2007ko ospitaleko batez besteko egonaldia 5,1 egunekoa izan da.

Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak (kardiobaskularrak) izan ziren 2007ko ospitaleratze-arrazoi nagusia, alden %12,2rekin; ondoren digestio-aparatukoak datoz (%11,4) eta nerbio-sistemaren eta sentimenen organoenak (%10,4).

1. grafikoa.- Akutuen ospitaleetan alta emandako pazienteak, diagnostiko-talde sarrien arabera. 2006-2007



Iturria: Eustat

Arnas-gaixotasunen 2007ko gorakada (%8,5) azpimarratzekoa da. Talde hau ospitaleratzeko laugarren kausa ugariena da, eraginik handiena urtarrilean, otsailean eta abenduan duelarik. Jaiotza-inguruko gaixotasunek (alden %0,7) aurreko urtearen aldean %11ko hazkunde nabarmena izan zuten; batez ere garai aurreko jaiotzagatik eta pisu txikiagatik.

Ospitaleko batez besteko egonaldirik luzeena buru-nahasteek izan zuten (14,1 egun); ondoren jaiotza-ingurukoek (13,8 egun); dezente beherago gaixotasun infekziosoak ditugu (8,6 egun) eta tumoreak (7,9 egun).

Ospitaleratutakoen artean, 7.786 pertsona hil ziren. Arrazoi nagusiak tumoreak (%26,5) izan ziren, eta haien artean “*bronkio eta biriketako tumore gaiztoa*” izan zen heriotzarik gehien ekarri zuena; ondoren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak datoz (%22,3) eta arnas sistemakoak (%18,1).

Pertsona bera behin baino gehiagotan ospitaleratzea eragin zutenen artean ondokoak ditugu: *mantentze-kimioterapia, bronkitis kronikoa, bihotz-gutxiegitasuna*.

Ospitaleratzeen arteko erdiak baino gehiago (%57k) kirurgi-prozedura edo interbentzioa behar izan zuten. Aparatu muskuloeskeletikoaren gainean egindakoak (%20) izan ziren ugariena, batez ere “*beheko soin-adarretako artikulazioetan*” eginak (aldakan, belaunean batez ere); gero aparatuko digestiboan (%14) eginak datoz, “*eten konponketa*” ugariena; eta ondoren begian eginak (%13) “*begi-lausoak*” aurrean delarik.

1. taula.- Altak diagnostiko-talde handien arabera, 2006-2007

Diagnostiko talde handiak	2006			2007					
	Altak	Guztira	%	Be*	Altak	Guztira	%	Be*	Δ %
Total	291.332	100,0	5,1		297.100	100,0	5,1	2,0	
Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	35.852	12,3	6,3		36.243	12,2	6,3	1,1	
Digestio aparatuko gaixotasunak	34.056	11,7	5,7		33.751	11,4	5,7	-0,9	
Nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunak	30.299	10,4	1,1		30.831	10,4	1,0	1,8	
Arnas aparatuko gaixotasunak	25.784	8,9	5,8		27.970	9,4	5,9	8,5	
Sistema osteo-mioartikularreko gaixotasunak	25.205	8,7	4,0		26.330	8,9	3,9	4,5	
Neoplasiak (tumoreak)	25.951	8,9	7,9		25.775	8,7	7,9	-0,7	
Haurduntza, erditzea eta erdiberriarora	24.841	8,5	2,9		25.706	8,7	2,9	3,5	
Lesioak eta pozoidurak	21.674	7,4	7,5		21.758	7,3	7,5	0,4	
Aparatu genito-urinarioko gaixotasunak	16.637	5,7	3,9		17.257	5,8	3,8	3,7	
Gaizki definitutako sintomak, zeinuak eta egoerak	12.983	4,5	4,8		13.837	4,7	4,8	6,6	
Beste batzuk	12.327	4,2	2,6		11.743	4,0	2,5	-4,7	
Larruazaleko eta azalpeko ehuneko gaixotasunak	5.165	1,8	3,7		5.295	1,8	3,2	2,5	
Trastorno mentalak	5.015	1,7	13,8		5.084	1,7	14,1	1,4	
Gaixotasun endrokino, nutrizional eta metabolikoak	4.430	1,5	5,7		4.262	1,4	6,0	-3,8	
Infekzio- eta parasito-gaixotasunak	3.664	1,3	8,7		3.425	1,2	8,6	-6,5	
Odoleko eta organo odol-sortzaileetako gaixotasunak	3.193	1,1	5,4		3.281	1,1	6,0	2,8	
Sortzetiko anomaliak	2.411	0,8	3,5		2.504	0,8	3,7	3,9	
Jaiotza-inguruko aldiaren sortutako gaixotasunak	1.845	0,6	13,5		2.048	0,7	13,8	11,0	

*Batez besteko egonaldia

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

+Tlf: +34-945-01 75 47 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp